

Bero-beroan

Ibarretxeren euskara informalaz sustatu.com-en

AITOR izeneko erabiltzaileak ateratu du gaia, alegia, zer iruditzen zaion jendeari Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak euskara informala edo “herrikoia” erabiltzea. Hainbatek egin du hausnarketa Aitorren gogoez. Lehendakariak hurbiltasuna eta naturaltasuna transmititzen duela uste du Aitorrek, baina era berean, galdetzen du ea Espainiako presidentek Zapaterok “hemos aprobau en el Parlamento...” esatea onargarria irudituko litzaigukeen.

Gipuzkera darabilela ere esan du norbaitek –batzuek gipuzkera den zalantzan jarri dute– eta galdetzen dute zergatik aukeratu duen berea ez

den euskalkia. Beste batek dio batua erabiltzearen lotsaz –euskaldun berriaren sindromea–, euskaldunago egiteko, jo duela euskalkira.

Gune formaletan Ibarretxek hizkera informal hori ez erabiltzearen alde batek baino gehiagok egin du Sustatuko erantzunetan, baina batekin batek adierazi du ez dagoela ahozko euskara eta gaztelania konparatzerik normalizazioari dagokionez. Beste erabiltzaile bat Unai Ziarrera EAko presidentearen euskara ortopedikoaz kezu da eta jaioterriko hizkeran, Mungiakoan alegia, hitz egitea gomendatzen dio.

Beste ahalegina eremu mistoa zabaltzeko

NAFARROAKO Ezker Batua (NEB) alderdiak eremu mistoa Iruñerri

osora zabaltzeko lege egitasmoa aurkeztu du berriro, eta Parlamentuak tramiterako onartu du. Bozketa egin –irailetik aurrera– eta Euskararen Legea aldatzea onartuko balitz, Aranguren, Galar, Beriain eta Noain (Elortzibar) eremu mistoan sartuko liriteke 2009tik aurrera. Lege proposamena onartzeko azken pausoa ez zen eman azken saioan, Txentxo Jimenez NaBaiko parlamentariak huts egin zuelako eta boz hori behar zelako aurrera egiteko.

BAHEA

Javier Ortizek *Diario de Noticias de Alava* gaztelaniaren aldeko manifestuaz esanak: “Manifestua sinatu dutenek ziurtzat jotzen dute espainiar naziotasuna dutenak (NAN espainiarra, uler gaitzen), arazorik gabe komunikatu daitezkeela gaztelaniaz, adimenaren ñabardura guztiak hizkuntza horretan komunika ditzaketela. Baina ez da egia. NAN espainiarra poltsikoan daraman askorentzat gaztelania komunikazio bide bortxazkoa da. Askoz hobeto moldatzen da hitz egiten, pentsatzen eta maitatzen ikasi duen hizkuntzan. Inork ezin du derrigortu, ez bada bortxaz, hitz egiteko edo idazteko zailtasunak dituen hizkuntzan aritzera. Frantsesez hitz egiteko eta idazteko nolabaiteko gaitasuna izateak ez dakar inork ni derrigortzea giza harremanak frantsesez izatera.

“Baina zu ez zara frantziarra, espainiarra baiziki!”, esaten didate. Beraz, kontua hori da: naziotasun bat atxiki didate eta horrek betebeharrak saihestezinak dakartza. Beraz, ez gara hizkuntzez hitz egiten ari, politikaz baiziki. Hortik hasi besterik ez genuen!”.

Johan Haggman Europako Batzordeko Eleaniztasunerako komisarioak *Berrian* esanak: “Europako Batasunean, bi hizkuntza gutxitu dira bakarrik ofizialak, irlandera eta Finlandiako suediera. Bestalde, lau hizkuntza gutxitu koofizial daude, euskara, katalana eta galegoa, duela lau urtetik, eta orain dela hilabete batetik, galesera”.

TALAIAN

Porlanaren negozioa

Bizi dugun dezelerazio eta krisi ekonomikoaren inguruko ikuskizuna izan dugu hedabideetan azken egunotan. Bai autonomia eta foru gobernuak, EAEkoa eta Nafarroakoa esaterako, baita Espainiar Gobernu ere, nork neurri gehiago eskaini aritu dira. Lotsagarriak izan dira Lakuak eta foru aldundiek iragarritako ustezko inbertsio planak. Eta goia jo dute Bizkaiko diputatu nagusiak egindako iragarpenekin: Urdaibain egin beharreko Guggenheima eta errepide sare berrien planak. Hori guztia, eragile sozial, ekonomiko eta politikoak kontuan hartu gabe. Ergeltzat hartu nahi gaituzte, euren asmoak ez dira berriak eta aurrekontuak eginda eta iragarrita zeuden. Gainera, krisiaren eragin sozialak konpontzeko planak direla sinetsarazi nahi digute. Asmo zahar horiek, ordea, eraikuntza sektorearekin kolaboratzeko dira, porlanaren negozioa iraunarazi eta euren lagun enpresariaren diru-kutxak betearaziz.

Krisi ekonomikoaren eraginak jasaten dituztenak ez dira enpresariak izaten, are gutxiago oraingo honetan. Lanik aurkitzen ez duten gazteak edo aurkituta ere, ezegonkortasuna pairatzen dutenak dira kaltetuak. Familiaren etxea utzi ezin dutenak dira. Hilero hipoteka ordaindu behar dutenak. Hilabete bukaerara iristeko adinako diru sarrerarik ez duten alargunak. Euskal Herriaren pobrezia atarian bizi direnak. Etorkinak dira, langabezia jasaten lehenak eta baztertuenak. Baina horiek guztiak gure agintarien arreta jasotzeko ekonomia eta gizarte eredu berria behar da. Zementuaren negozioari eusten dionaren ezberdina, noski.

Juan Mari Arregi

Lausotasun estrategikoa nagusi

URRIKO KONTSULTAREN

gidoia betetzen ari da eta EHA-Kren boto bakarra bere ahultasunaren erakusle ere bada bederen. Baina tira, Eusko Legebiltzarraren gehiengoa osatzeko balio izan zuen eta horrek baliagarri egiten du hirukoaren lehen urratsa emateko, Kontsulta Legea aurrera ateratzeko.

Orain Madrilen zain egotea dagokio hirukoari: lehenik, Espainiako Gobernuak helegitea jarriko dio eta Kontsulta Legea geldiarazi, helegiteak berak bakarrik ez bailuke berez kontsulta geldiaraziko. Lehenengo helburua, beraz, beteta izango da, Zapatero gobernuburua urriko herri kontsulta gelditzearen erantzule egitea. Hortik aurrerakoak ezezagun dira, Miren Azkarate Jaur-laritzako heledunak argi esan du: pentsatua dago zer egin, baina ez da oraindik hori aireratzeko unea.

Epe ertaineko jomugan hauteskunde autonomikoak dira erantzun eszenatoki nabarmenena, beti ere Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bere epaia eman ondoren, eta bost hilabete izango du horretarako. Hauteskundeetan Patxi Lopezek ordezkatzeko ditu oraingoan alde



konstituzionalistaren indarrak; Ibarretxek abertzaleena. Eta Ibarretxek ez du erronka makala, 2008ko giroa ez delako 2001ekoa: Lopez ez da Mayor Oreja, orduko PP-PSEren irudia eta egungo PSErena oso desberdinak dira, abertzaletasuna oso sakabanatua da, ezker abertzalearen aurkako errepresio giroak akaso Ibarretxeren aurka egiten du... Eraitza seguruenik estua izango da oso, eta neurri handi batean herri kontsultaren gaia epe ertainera horren menpe dago.

Hauteskunde testuingurutik kanpo ez dirudi gauza asko etorriko denik: Auzitegi Konstituzionalak Kontsulta Legea bertan behera utzi ondoren egingo da mobilizazio handiren bat, baina egungo testuinguruan

mobilizazio giroa horretan amaituko da seguruenik.

Hortik aurrera ezin da askoz gehiago ikusi, hauteskundeetako emaitzek asko baldintza dezaketelako etorkizun hurbilean aktore politikoek egin dezaketena. Lausotasuna da, beraz, herri kontsultaren ekimenak bere baitan duen ezagarririk nagusia. Erabaki eskubidea dago helburu

estrategiko gisa, baina horretara iristeko helburu taktikoak ez dira batere garbi antzematen. Hori da bere ahuldaderik handiena, nahiz eta, horra paradoxa, akaso horrexegatik atera den Kontsultaren Legea aurrera.

PSN-REN kongresuak egoera lotua eta ondo lotua utzi du: aldatetaren aurrean, UPN eta egungo giroa hobe. Bakarrik ikusi behar da horrek zer ondorio duen alderdiaren etorkizunean; seguruenik doanekoa ez da izango. NaBai-ren esku dago UPNren oposizio sendo eta bakar gisa agertzeko aukera. Barne kohe-sioa handitu eta proiektu politikoa gehiago argitu beharko ditu horretarako eta, agi denez, esku bete lan du horretan.



DONOSTIA

Uztailaren 4tik 13ra, Gipuzkoa Plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

EUSKADIKO LIBURU GANBARA